

JEOLIMO'REN AMEZA

ZORIGAIZTOZKO guda asi zan ezkeroz, gudan ari diranen ta ari ez geranen kezka biziya dala esan leike.

Orrela dalata bezte azko bezela, Jeolimo ere, kezka beraren malletan katibatuta zegoan.

Azteko alogera edo jornala akaztu bearrik, ardandegi zulotik erten gabe zegoan larunbat gau batean, batzuek garailari izango zirala edo bezteak irabaziko zutelagatik, erausi biziyan jardun zularik, ainbezte itzegitez eztarriya legortu zitzaion ta ardotik ondocho eginta echeratu zan. Oyea etzan zanakin batera luak artu zuanez, ardoak eragin oiditun lilluripenak azaldu zitzaizkan.

Ona emen amezak begitandu ziona.

Ilbeltza zan ta Rusiako estepa edo aratze batean zaldi batzuen gañean zaldun talde bat zetorkiola ikusi zuan.

Beragana irichi ziranean, etako batek soka-chimista (lazua) jaurti zion ta aberea izan balitz bezela, lepotik katibatu zuan.

Aitaren-sume orduko bezteak zaldietatik jachi ziranta gudari-ezkutaleku (trincheran), batean sartu zutelarik, periyetako olla-lepo-moztean oidan bezela, buru soill soilla ageri zuala, lurrez eztali suten.

Gero, etatik bati, muzu-zapi batez begiyak eztali zizkaten ta ezpata luze bat ezkuan zuala lepoa ebateko asmoan beragana zijoala zekusan.

Garai berean gorputza ikaraka zeukala bere emaztez gogoratu zalarik—nere andreak ikusiko banindu, esan oidun bezela, bururik ez daukatenik esango ez luke, —esan zuan, malko aundi bat matrallean beera irrištaka zijoakiola.

Ezpataz joan zitzaionak bere arekin lepoan jo zuan ta epalleak egurrari zertzena eman oidion bezela, burua lepotik kendu zion.

Une berean, aleman talde batek *kosakoak* urruškatu zituala, alemanetatik galantenak kurpillaka joan zitzayon burua artuta poto zarrari kertena ezarri oizayon bezela lepoan eztu eztu eginta ipiñi zion.

Egoaldiya otza bait zegoan ta odola artean bero beroa; ona, bada, nola bezte erara eziñ zeikeana egoaldiyaeren otzari ta odolene beroari ezkerrik, ill bear zuan aura, aleman biozberak berbiztu zuan.

Gertaera mireritsu aura jaso zanetik bereala, eurekin artuta, ur zeukaten erri-kóškor batera eraman zutelarik, atsedene zedillako eche chiki batean utzi zuten.

Echeak zeukan biztanle soilla atso pollit simurtu bat zan.

Atsoak, zutonduan ešeri-arazi zuan ta zulla buruan artuta urez betetzeraz joan zan.

Sutonduan atsegiñik aundiyenian zegoan artan ¡plust! burua lepotik askatuta erori zitzayon.

Larri biziyan jaikita burua billatzen asi zan.

Alakorik batean burua topatu zuala, bere aura artuta ¡zapla! alemanak ezarri zion bezela, eztu-eltu eginta burua lepo motzari ezarri zionta ¡kašo bapo! ezere gertatu ezpalitzayo bezela sutonduan ešeri zan baño len baño atzerašoago; beroak berriro askatuko ote zion bildur bat zan, bada.

Ezkua arpegira eraman zuan batean latz eritzi ziolarik, jaikita bizarra kentzeko asmoan bizartegira joan zan.

Baña ¡O zorigaitzaren indarra!

Bizartegiko išpillutzarrak, bere buruaren orde, lepoari egotzi zion cherri buru bat erakutzi zion.

Gizarajuak, gertatu zitzayonari lazter antzeman zion; bere burua zana artu bearrean, atsoak zukaldean zeukan cherri burua zan artuta lepoari ezarri ziona.

Bizargiña ta bezeroak (clientes) arrituta zeudela, deabruak eraman oiduna baño azkarrago igazika joan zan.

Urruti etzala guda-burrunda somatu zualanik, bertara joanta, bere zorigaitzaren amorruari bide egiñaz, basatiya baño basatiyago, arrapatzen zuan guziya, lurretik jaso zuan izkillotz batez, jota akabatzen zuan; baño alakorik batean bera ere ta aitiñ zuzen lepoan jo zuten ta berriro bururik etzuala utzi zuten.

.....

Ardo-atzak banatuta amezaren mendetik irten zanean, esnatu zan ta gela-zokorrek begitzunaz astartu zituan.

Ordurako eguzkiaren ziargiyak gelaraño sartu ziran.

Bere echeko gelan zegoala antzeman zionean, sutunpotsa zirudiyan deadar batez — ¡Panchika! — deitu zuan.

Panchika zukaldean gozariya egiten ari zala, deadarra entzun zua-nakin batera larriturik, choriya baño piskorrango gelaraño joan zan, ta senarrari:

Deabruzko orrek ¿zer bear dirazu? —itandu zion.

Jeolimok: ¿Nere burua nun da? — galdetu zuan.

¿Zure burua? Lepuan.

¿Lepuan? — Jeolimok berritandu zuan.

Lepuan, bai, lengo lepuan, onezkeroz, ala bearko du ta.

Jeolimok begiyak zabal-zabal eginta asperen luze bat egin zuan; gero ezku biyekin buruari eutzita — ¡Kaso Jeolimo, oraindik ere bizi aiz! ¡Abejon daikala motell! — deadarka esan zuan.

Andreak, senarrari zoratu zitzayola uzteta. ¡Ez da makala bera! Oraingoan bene benetan egin zayo, esan ta sukaldera joan zan.

.....

Jeolimok aezkeroz lotatik esnatzen dan guzitan burua lepoan daukan edo ez ziurki jakin gabe jaikitzen ez da ta gudako aldarte gayean zerbait aditzen badu, amezetan ari dala iruditzen zayo.

Ta kontu ori ala bazan.

Sartu dedilla kalabazan.

JOSÉ ELIZONDO.